

Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA

Bileraren datuak:

Eguna: 2017/01/19

Tokia: Santa Clara Jauregia

Ordua: 17:00

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu

Gizatiar: Margarita Tarrazaga

Emakumeon Ahotsa: Luzmyla Montoya

Eskuz Esku: Isabel Perez

EH Bildu: Nerea Gijarrubia

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Amaia Aguirre Muñoa

GUK: Paula Amieva Clamente

Udal Talde Sozialista: Teresa Escalante

Talde Popularra: Susana de Cos Yañez

Berritzegune: Ana Sofía Gutierrez

Kontseiluburua: Keltse Eiguren Alberdi

Ordezko idazkaria: Leire Sologaistua Goitia

Ez dira etorri:

Roda, ELA

Gai-zerrenda:

- Aurreko akta onartzea
- Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna: balorazioa
- Emakumeen Etxeari buruzko prozesua
- Berdintasunerako IV. Plana
- Martxoaren 8a
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aho batez onartu da aurreko batzarreko akta.

Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna: balorazioa

Puntu hau jorratzeke geratu zen Berdintasun Kontseiluaren aurreko batzarrean.

Keltse Eiguren Berdintasun zinegotziak jakinarazi du egin zirela Udalak pentsatu zituen ekintza guztiak, eta pena izan zela hitzaldi-*performancearen* parte ezin egin izana. Hitzaldia oso interesgarria izan zen, nahiz eta jende gutxi bertaratu zen. Esan du ez dakiela ideia horren inguruan ekintza ugari antolatzen direlako izan den edo ez dakigulako iristen Getxoko gizartearen espektro horretara.

Etxolei dagokienez, metroaren bi irteeretan jarri ziren, eta oso harrera ona izan zuten.

Azaroaren 25ari buruz elkarteek beren iritzia emateko txanda hasi da, eta Uxune Iriundo Bilgune Feministaren ordezkariak azaldu du eurek mobilizazio bat egin zutela, euren iritziz ekintza asko egiten baitira eta ezinezkoa baita guztira iristea. Gehitu du hitzaldi horiek ez direla han biltzen garenontzat soilik egiten, eta uste duela bakoitzaren ardura dela ordezkatzeko dugun elkarteko zein alderdi politikoko kideengana zabaltzea. Izan ere, emakumeen trata, adibidez, zein beste edozein gai, politikak eta aurrekontuak erabakitzen dituztenek ezagutu beharreko kontua litzateke. Eta gizon eta emakumeentzat antolatzen dira.

Susana de Cos Talde Popularraren ordezkariak esan du bere iritziz ez dela jendearengana iristen. Mahaiari galdetu dio ea arrazoia ez oten den jendeak oso irudi erradikalizatua duelako feminismoaz.

EH Bilduren ordezkari Nerea Gijarrubiak esan du hori mahai gainean jarri den hipotesia dela, eta balitekeela horrekin ados egotea edo ez egotea.

Eskuz esku elkarteko Isabel Pérezen iritziz ere ez da jendearengana iristen, eta pena da, ikusita zer nolako eskaintza dagoen arlo horretan.

Carlos Escalerak esan du ezjakintasun handia dagoela feminismoa zer den, eta, bere iritziz, didaktikoagoa den beste era batez emango balira, leku hurbilago batean, kalean bertan...

Amaia Aguirre EAJ-PNVren zinegotzia batez ere edukiagatik delakoan dago, bere ustez emakumeen salerosketa ez baita gazteei interesatzen zaien gai bat. Adibidez, gazte asko ikusten duten "Juego de Tronos" telesailan, emakumeen papera guztiz laidotuta dago. Esan du bere ustez hitzaldiak egin litezkeela gaur egungoagoak diren gaiekin, gai ezagunagoekin.

GUKen ordezkari Paula Amievari oso interesgarri iruditu zaio Martxoaren 8rako erabiltzea modan dauden irakurgaiak, telesailak edo filmak.

Emakumeen Etxeari buruzko prozesua

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du Gobernu-taldearen beraren lan-mahaian dagoela hausnarketa egitea, prozesu parte-hartzaile bat egitea emakumeen etxe bat sortuko balitz, Kontseiluaren aurreko bileran mahai gainean utzi genuen moduan; Amaia Aguirre da prozesu horren arduraduna, eta berak azaldu du:

Amaia Aguirrek jakinarazi du proiektua aurkeztu dutela. Prozesua, beraz, otsailean hasiko da. Bi fase izango ditu. Lehenengo fasean diagnostiko bat egin nahi dute: Getxoko emakumeek zer beharizan eta zer iritzi dituzten. Beharizan horiek antzemateko, 12 elkarrizketa sakon egingo dira, eta galdetegiak egingo dira, online zen offline, emakumeei zuzenduta oro har.

Horrekin batera, katalogo bat egingo da gaur egun dauden emakumeen etxeei buruz. Hori lehen fasea izango litzateke, hilabete baten epean egitekoa.

Lehen fase hori bukatzeko, topaketa bat antolatuko da, eta bertan katalogoa aurkeztuko da, eta hizlari pare bat gonbidatuko dituzte azaltzeko zer den emakumeen etxea.

Elkarrizketatzekoak diren 12 emakumeak aukeratzeari dagokionez, hasiera batean, 5 elkarrizketa egiteko asmo zegoen, baina gero handitu da kopurua: idazten duten Getxoko emakumeak, kirol arloko emakumeak, emakume enpresaburuak edo ekintzaileak.

Dena dela, Amaia Aguirrek azaldu du elkarteren bati bururatzen bazaio interesgarri izan daitekeen norbait, ondo legokeela eurei jakinaraztea, hari elkarriketa egiteko.

Uxue Iriondok hauexek proposatu ditu: Rocío Lucas, Izaro Gonzalez eta Jone Uría. Amaia Aguirrek erantzun dio dagoeneko proposamena egin dela.

Amaia Aguirrek azaldu du prozesuak bigarren fase bat izango duela beharizan horiek jaso ostean. "Open space" bat egingo da: prozesu parte-hartzaile ireki bat, gai horri buruzko puntu zehatzei buruz eztabaidatzekoa. Hau da, ez da emakumeen etxearen gai orokorraren gainean eztabaidatuko, gai horren puntu zehatzen gainean baizik: esaterako, kudeaketa, gizonezkoak sartu ahal izango diren ala ez...

Bigarren fase horrek martxoan amaituta egon behar du.

Diagnostikoa eta Berdintasunerako IV. Plana

Keltse Eigurenek jakinarazi du abenduan Emakunderi bidali ziotela Berdintasunerako Plana, horren gaineko txostena egin zezan. Emakunderen txostena jaso dute, 2017ko urtarrilaren 18an, eta zenbait oharpen dakartza txostenak, baina ez dira asko ez garrantzi handikoak. Hala ere, ez zaie egoki iruditu proposamena Osoko Bilkurara eramatea, zuzen baiteritze Emakunderen proposamenei. Ez dira desadostasunak, bai, ordea, euren ustez egoki diren oharpenak.

Oharpen horiek Planean sartuta daudenean, Kontseiluko kide guztiei helaraziko zaizkie.

Azkenik, Berdintasun zinegotziak baieztatu du konpromisoa dagoela otsailean eramateko Osoko Bilkurara.

Martxoaren 8a

Horri buruz, Keltse Eigurenek txanda bat zabaldu du, Kontseilua osatzen duten pertsona guztiek ekarpenak egin ahal izateko, eta denbora tarte bat eskaini da ekarpen horiek egiteko. Hori guztia, kontuan izanda barne-mahaiaren gainean utzitako helburua, hau da, herritarrentzat erakargarriak izatea Martxoaren 8a dela eta Udalak egingo dituen ekintzak, eta herritarren espektrora zabalago batera iristea lortzea.

Ekarpen-txanda hasita, Isabel Pérezek esan du interesgarri deritzola komunikabideetan emakumez ematen den ikuspegiaz lehen proposatutakoari ("Juego de Tronos" telesailaz komentatutakoaren ildotik).

Horren kontura, Keltse Eigurenek esan du begiratu beharko litzatekeela ea gaia jorratu den aurreko Martxoaren 8ren batean.

Paula Amievak gogora ekarri du sare sozialetan kanpaina bat egin zela, "fikzioan ikusgarri egitea", eta horretan era positiboan egiten zuten ikusgarri bazter utzitako emakumeen papera, fikzioan, kasu horretan. Hori bi eratara jorratu liteke: paper indartsua duten emakumeak, batetik; eta "Juego de Tronos" telesailan bezala, bestetik.

Une horretan, bertaratutakoek hainbat ekarpen egin dituzte; eta, indarkeriaren ikuspegitik ez jorrazteko, Azaroaren 25erako egokiago baita, proposatu da era positiboan egitea beste arlo batzuetan: zientzia arloko

emakumeak, emakume ekintzaileak... Paper garrantzitsua duten eta ikusgarri egiten ez diren emakumez hitz egitea, positiboan hitz egitea gaiaz.

Keltse Eigurenek, mahaian hitz egindakoa laburbiltzeko, esan du ardatza izan litekeela "ikusgarri egitea emakumeek zenbait arlotan duten papera" edo "kristalezko sabaia". Gogora ekarri du behin Gizatiar elkarteak hizlari bat ekarri zuela emakumeek zientzian duten papera ikusgarri egiteko. Mahaiari galdetu dio ea zabalegia litzatekeen lelo horren pean egitea, ea agian arlo jakin batera murriztu beharko litzatekeen, kirolera, zientziara edo arteetara, esaterako.

Nerea Guijarrubiak proposatu du hizlaria gertukoa izatea; jakitun da zaila dela, baina azpimarratu du gertukoa edo pertsona ezaguna izan behar duela, jendea erakarri ahal izateko, lehen aipatu den bezala.

Keltsek esan du ados dagoela proposamenarekin, baina gogorarazi du arrakasta handia lortu zela Toti Martínez de Lezea ekarri zutenean Martxoaren 8rako. Oreka hori bilatu beharko litzateke. Unibertsitateko errektorearena oso ondo iruditzen zaio. Kontua izango litzateke oreka bilatzea, erakarpen handiko norbait ekartzea.

Era berean, galdetu du ea ez litzatekeen komenigarria izango, ekintza asko egin beharrean, mahai-inguru bakarra egitea, herritarren interesari eusteko edo hura pizteko.

Amaitzeko, Keltse Eigurenek gai horren inguruko ekarpen-txanda bat ireki du, eta eskatu du proposamenak Berdintasun teknikariari bidaltzeko posta elektronikoz, baita berari ere. Otsailaren 3ra artekoa izango litzateke e-mailak bidaltzeko epea.

Beste alde batetik, Keltse Eigurenek jakinarazi du egitekoa dela oso interesgarri iruditu zaien hezkidetzari buruzko kontu bat. Antzezlan bat eskaini diete: oso harrera ona izan duen "Futbolariak eta Printzesak".

Galde-eskeak

Elena Coria zinegotzia eta Berritzeguneko Ana Sofía Gutiérrez gehitu dira batzarrerara.

Eskuz esku elkarteak galdetu du norengana bideratu behar duten Jabekuntza Eskolaz galdetzen dien jendea. Urgulleko bulegoetara bidaltzeko erantzun diote.

Berritzeguneko Ana Sofía Gutiérrezek jakinarazi du Hezkuntza Saitetik beti proposatzen dutela Martxoaren 8rako lan bat egitea ikastetxe guztiekin. Berritzegunek proposatu zuen orri-markatzaileen lehiaketa bat egitea, irabazle irteten den ikastetxeari inprimatuko zaio bere orri-markatzailea, eta gero ikastetxe guztiei banatuko zaie.